

ECQUATIC




Zer da Ecquatic? Ecquatic Armentia Ikastolako Batxilergo lehenengo mailako ikasleen proiektu bat da. Botila birziklatuekin egingo dugu gure proiektua. Alde batetik, tapoiekin sakelako fundak egingo ditugu. Bestetik, botilekin plastikozko sokazko motxilak produzituko ditugu. Botilak jasotzeko edukiontziak jarriko ditugu.



BALIO PROPOSAMENA:

Ecquatic proiektuak bezeroen eskakizunak betetzen ditu merkatu honetan kontsumitzen diren ondasunak eskainiz. Hortaz, gure produktuen kontsumitzaileei haiek eskatzen dutena ematen diegu. Horretarako bereizten gaituen zerbait behar dugu. Gure produktuak ezberdinak eta bereziak dira, bereziki haien faktore kualitatiboengatik, hau da, materialagatik eta haien diseinu naturalagatik. Balio kuantitatiboari buruz hitz egiten, prezioak ez dira merkeenak taldearen partaideon soldata duina baita. Baina beste enpresa askorekin konparatuta oso produktu ekonomikoak dira kalitatea kontuan izanda.



Goian aipatutakoaz gain, hainbat faktoreek ere asko bereizten gaituzte. Gure produktuek berritasuna ekartzen dute, azken finean ez da ia inoiz ikusi gure zerbitzua eskaintzen duen beste enpresarik. Horrez gain plastikoek eta koloreek diseinu oso ezberdin bat ematen diete ondasunei, koloretsua eta alai. Baina ez dira kalitate txarrekoak izango, plastikoaren kalitatea ezinhobea izango da eta produktuaren kalitateari garrantzi izugarria emango diogu beti.



Ez hori bakarrik, gure etika zuzen mantentzea zerbait ezinbestekoa da guretzat. Horregatik gure material guztiak birziklatuak dira. Planetaren osasuna mantentzea eta hobetzea eta kutsaduraren murrizketa sustatzea gure ideei nagusienetarikoa dira. Horregatik, gure produktuak kontsumitzean lurraren osasuna zaintzen du erosleak. Gainera, gure ondasunak praktikoak eta beharrezkoak dira guztion eguneroko bizitzan. Azkenik, gure langile kualifikatuak kontsumitzaileen funden eta motxilen eskuragarritasuna ezinhobea izateaz arduratuko dira.